



Zinemarik ikusgarriena Egian

Interesgarriak dira Egiako Martin Santos plazan proiektatuko dituzten hiru filmak. XIX. mendean barna "Native Americans" taldeak eta jatorri irlandarreko mafiak New York hiriarren jabe egiteko izan zuten borroka odoltsua islatzen du "Gangs of New York" drama epikoan Scorsesek. "Chicago" komedia musikal atsegina ere iradokitzaila da oso. Odolez, izerdiz eta malkoz atondutako istorioak maite baldin badituzue, ez ezazue "Windtalkers" galdu.

Uztailak 22: "Gangs of New York". Zuz: Martin Scorsese (2002, AEB).

Uztailak 23: "Windtalkers". Zuz: John Woo (2002, AEB).

Uztailak 24: "Chicago". Zuz: Rob Marshall (2002, AEB).

Akziozko zinema Antiguak

Akzioa eta umorea uztartzen ditu Joel Schumacher beteranoak "9 días" filmean. Anthony Hopkins eta Chris Rock bikote bitxiaren luzimendu hutserako diseinaturiko ekoizpen komertzial arin bat besterik ez da, baina. Abentura apokaliptiko epikoak gogoko dituzuenok, berriz, "El imperio del Fuego" duzue aukerarik onena. Lee Tamahori-ren "Muere otro día" ikusgarria da, ordea, akziozko filmik



erakargarriena. Antiguako frontoian izango dira emanaldi guztiak.

Abuztuak 7: "9 días". Zuz: Joel Schumacher (2001, AEB).

Abuztuak 8: "El imperio del fuego". Zuz: Rob Bowman (2002, AEB/EB).

Abuztuak 9: "Muere otro día". Zuz: Lee Tamahori (2002, AEB/EB).



Altzan, film komertzialenak

Arrakasta handiko film komertzialen kalitatea nahikoa kaskarra izan ohi den arren, Altzan proiektatuko diren filmen aukeraketa aparta izan denik ezin uka. "XXX" hutsala kenduta, beste guztiak komertzialtasuna eta kalitatea ezin hobeto uztartzen dituzten film arrakastatsuak baitira: "Minority Report" zientzia-fikziozko film iluna da, beharbada, ekoizpenik zirraragarriena. "Camino a la perdición" ere fina da, benetan. "El Señor de los Anillos: Las dos torres" berriz, gaztetxoak zein helduak ere lileratzeko moduko ikuskizun ederra da. Emanaldi guztiak Plaza Gorrian izango dira.

Uztailak 3: "Minority Report". Zuz: Steven Spielberg (2002, AEB).

Uztailak 4: "Camino a la perdición". Zuz: Sam Mendes (2001, AEB).

Uztailak 5: "XXX". Zuz: Rob Cohen (2002, AEB).

Uztailak 6: "El Señor de los Anillos: La dos torres". Zuz: Peter Jackson (2002, AEB).



Nazioarteko zinemaren perlatxoak Amaran

Amara Berriko Araba parkean Hollywood ahalguztidunetik at egiten den zinemari lekutxo bat egingo zaio abuztuaren azken astean. Komedia erromantiko samurrak gustuko dituzuen guztiok irri egiteko parada ezin hobea izango duzue "Quiero ser como Beckham" atseginarekin. Erromantikoek,

bestetik, gogoz negar egingo duzue Dai Sijie txinatarraren "Balzac y la joven costurera china" sentiberarekin. Budista futbolzaleok, berriz, nekez aurkituko duzue "La copa" baino film egokiagorik. "Battle Royale" polemikoa ausartenei dago zuzendua soil-soilik.

Abuztuak 27: "Quiero ser como Beckham". Zuz: Gurinder Chadha (2002, EB).

Abuztuak 28: "Battle Royale". Zuz: Finji Fukasaku (2000, Japonia).

Abuztuak 29: "Balzac y la joven costurera china". Zuz: Dai Sijie (2002, Frantzia/Txina).

Abuztuak 30: "La copa". Zuz: Khyentse Norbu (1999, AEB/Tibet).